

Urrezko bota

Egunkaria, 1998-07-25: 35.

Hiru motako bizilagunak ditut, aukeran bezala: Familia afrikar handi bat bizi da aldameneko etxean, edifizio osoa hartzen du gainezka, eta beltza da, beltz-beltza. Bigarrena, "plaza", "aparkalekua" edo "lorategia" deitzen dioten gunen honetan egun osoan ditut mutil koskortuak jolasean kolpe eta zunpa gomazko pelota gorri batekin; ez dirudi futbolearen ari direnik; egokiagoa da esatea haurrek baloiarekin kotxeen aurka duten eten gabeko borroka dela, hau da nerekin bizi den bigarren familia beltza. Eta hirugarren konpainia jokorako direla diruditen makinak berak dira marka handiko familia osatzen dutenak, eta denak Land Rover, Cadillac, Buick, amerikar handiak eta beltz hertsiz pintatuak.

Honera, hiru defentsa-lerroko gotorleku honetara, etortzen dira bisitan dotore jantziak janzki eta gorbata, hatz eta belarrietan urreak erakusten, gizon beltz txarolatuak... Ez dira oharkabe pasako, beti dauka familia handi honek emakume bat leihotik ikusmiran, zain, ea noiz agertzen den hurrengo automobila. Uste gabeko keinu zoro batean harrapatu nuen begiz neuk in fraganti honera mudatu berrian. Dena zen berria neretzat! Ordukoa da haurrek baloiarekin zituzten abileziak egin zidaten zirrara, zangomotzak bereziki, ezkerreko belaunetik moztua du aizkoraz bezala eta hutsik zerabilkien karrozeriako xaflaren gainean labain egin eta pelota ostikadaz jotzeko! Harrigarria hankondo itsu haren jokoa! Horzkidura ere eman zidan, berak osorik zoriontsu zirudien arren bi parafangoren artean zegoen atezain mehe zipriztinari baloia hankatartetik sartu zionean: "Gol!".

Denak zuen interesa neretzat.

Hiru bizitzako etxearen aitzinaldea akastua eta pitzatua ikusi nuen, eta dago, leihatilak ere deskaskarilatuak eta tarteka zulatuak eta ezpalduak ere badaude. Ez dakit nola, balaz ez bada. Behegaineko bizitza burdin-hesiaz josi dute oraintsu, dirudi. Sarrera nagusitik hasi eta solairu honetako hirugarren leihoak badu aurrean ispilu bat zintzilik, txirrina nork jotzen duen ikusteko. Etxe barruko begiratzaila leihorearen aurrean jartzen da, eta bere burua kanpora erakutsi gabe atera heldu dena erretratatzeko zaio ispiluan. Kotxe baten atzeranzko ispilua da, hor dago dindilizka Afrikako seinale gisa bere prekaritateak harro erakusten. Zer kontrastasun emakumeak gizonekin irteten direnean ere, haur horiek beti hor pentsatzeko makinari eragiten kili-kolo ikuskizunaren lekuko, durbanteak, makilaje eta koloreak kontinente beltzaren banderak balira legez hedatzen direnean. Badakite denak, eta haurrak batez ere, hurrengo goizean erosketetarako oinezko irteera bakarti eta lotsatia egiten dituenen garraiorako espartzuzko zakua dutela apaingarri.

Bistakoa da haurren harridura, eta dendariarena.

Zeren eta lehen bizitzaren behean dauka negoziua antikuari batek; alkoholikoa da hatzak nikotina hori zikinez tindatuak dituen belgiar hau zuria da, zuri pekatsu xurbila.